

EH Bilduk EAJ-PSE gobernu taldeak indarkeria matxista pairatzen duten emakumeentzako diru laguntzaren murrizketa kritikatu du

Nagore Gomara: *“Onartezina da, bigarren aldiz, udal gobernuak berdintasun-politiken aurrekontu-mantentze edo igoera bati uko egitea. Hurrengo urterako, aurrekontuetan, indarkeria matxista jasaten duten emakumeen diru laguntza erdian murriztu dute”.*

Laudio, 2020.11.25. Azaroaren 25a “Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna” dela-eta, Laudioko EH Bilduk, bere egiten du gure lurralde, herrialde eta herriak, indarkeria matxistarik gabeko gune gisa eraikitzeke ardura. Lehentasunezko konpromiso politikoa berresten dugu indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan. Horretarako, ezinbestekoa izango da orden sozial patriarkala aldatzea, emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealitate bihurtzeko xedez. *“Erakundeok erantzukizun berezia dugu horretan, eta ez ditugu promesarik nahi baizik eta ekimenak, mugimendua ibiltzen erakusten baita”*, adierazi du Gomara zinegotziak.

COVID-19ren pandemiak gure bizitza eta komunitateak kolokan jarri ditu, pertsona guztien osasunari, segurtasunari, ongizateari eta komunitate-bizitzari erronka handia jarritz. Mundua ulertzeko eta bertan egoteko modua aldatzen ari da. Konfinamenduak, mugimendu-murrizketek eta harreman-mugek agerian utzi dituzte indarkeria matxista mota desberdinei aurre egiten ari diren emakumeen egoera oso ahulak.

EH Bilduren ustez, tamalgarria da EAJ-PSE gobernu-taldeak egoera honen aurrean, berdintasun politiketan, 2021eko aurrekontuei begira hartutako erabakia. *“Alderdian, oso argi dugu indarkeria matxistari aurre egin ahal izateko ezinbestekoa dela berdintasun-politikei beharrezko giza baliabide eta baliabide tekniko zein ekonomikoak ematea. Krisiak ez du aitzakia izan behar zapalkuntza larri eta kolektibo honi aurre egiteko beharrezkoak diren aurrekontuen murrizketa edo izoztea justifikatzeko. Are gehiago, beharrezkoak dira herrian, parte hartzeko gune gehiago, esate baterako, aurten gauzatzen ari ez den ahalduztze programa edota emakumeen etxea”.*

Bestetik, EH Bilduko zinegotziak aipatu du aurten, Laudioko Udalean, A25erako erakunde adierazpen ez bateratua egotearen arrazoia indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen diru laguntzan egindako murrizketa izan dela. *“Gaingitu ezin diren marra gorri batzuk daude, eta berdintasun politiketan murrizketak ezartzea, horietako bat da. Berritri ere, gobernu taldea bakardadean geratu da eta oposizioaren babesarik gabe, A25erako adierazpena adosteko orduan”.*

Bukatzeko, EH Bilduk borroka feministaren alde hartu duen konpromisoa berretsi du, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeke bide eta tresna nagusia den heinean, eta Laudioko herritarrei dei egiten die azaroaren 25ean, Mugimendu Feministak antolatutako mobilizazioan parte har dezaten.

EH Bildu critica al grupo del Gobierno EAJ-PSOE la reducción de la ayuda económica destinada a mujeres que sufren violencia machista

Nagore Gomara: *"Es inaceptable que, por segundo año consecutivo, el gobierno municipal renuncie a un mantenimiento o incremento presupuestario de las políticas de igualdad. En los presupuestos para el próximo año, se ha reducido en la mitad la subvención destinada a mujeres que sufren violencia machista".*

Laudio, 25.11.2020. Con motivo del 25 de noviembre "Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las Mujeres", EH Bildu Laudio asume la responsabilidad de construir nuestros territorios, países y pueblos como espacios libres de violencia machista. Reiteramos nuestro compromiso político prioritario en la lucha contra todas las manifestaciones de este tipo de violencia. Para ello, será necesario cambiar el orden social patriarcal con el fin de hacer realidad los modelos de relación entre mujeres y hombres. *"Las instituciones tenemos una especial responsabilidad en ello, y no queremos promesas sino iniciativas, porque el movimiento se demuestra andando"*, ha indicado la concejala Gomara.

La pandemia de la COVID-19 ha hecho tambalear nuestras vidas y nuestras comunidades, desafiando la salud, la seguridad, el bienestar y la vida comunitaria de todas las personas. La forma de entender y estar en el mundo está cambiando. El confinamiento, las restricciones de movimientos y las limitaciones de relación han puesto de manifiesto las situaciones muy vulnerables de las mujeres que se están enfrentando a diferentes tipos de violencia machista.

EH Bildu considera lamentable la decisión del equipo de gobierno EAJ-PSE de cara a los presupuestos de 2021, en políticas de igualdad, ante la situación en la que estamos viviendo. *"En nuestro partido, tenemos muy claro que para poder hacer frente a la violencia machista es imprescindible dotar a las políticas de igualdad de los recursos humanos, técnicos y económicos necesarios. La crisis no debe ser excusa para justificar el recorte o la congelación de los presupuestos necesarios para hacer frente a esta grave opresión. Es más, son necesarios en el pueblo, más espacios de participación que todavía no están en marcha, por ejemplo, la escuela de empoderamiento que este año no se ha activado o la casa de las mujeres"*.

Por otro lado, la edil de EH Bildu ha señalado que este 25 de noviembre no ha sido posible acordar una declaración institucional conjunta en el Ayuntamiento de Laudio, debido a este recorte mencionado en la subvención a las mujeres que sufren violencia machista. *"Hay ciertas líneas rojas que no se pueden traspasar, y establecer recortes en las políticas de igualdad, es una de ellas. De nuevo, el equipo de gobierno se ha quedado sólo y sin el apoyo de la oposición a la hora de consensuar la declaración del 25 de noviembre"*.

Por último, EH Bildu ha reafirmado su compromiso con la lucha feminista como principal vía e instrumento para construir una sociedad democrática libre de violencias, y ha hecho un llamamiento al pueblo de Laudio para que participe en la movilización organizada por el Movimiento Feminista este 25 de noviembre.